



Olentzero eta Mari Domingi ikusteko irrikaz daudenek, gutxi itxaron beharko dute

Gabonen aitzakian egitarau zabala antolatu dute eskualdeko herriek, zerrenda ikusgai ondorengo orrietan: [4-5](#)



3. urtea. 415. zenbakia. • www.ataria.info • 107.6 fm • 105.0 fm • **ASTEAZKENA, 2015-12-23**



Nahikari Calleja, Tomas Lizardi, Iñaki Lizaso eta Oihan Agirretxe BiHozkadak

«Talde oso gaztea gara, sendotasun eta konfiantza bila goaz orain»

Hastapenetan murgildurik dagoen musika taldea da BiHozkadak; «ezustean» sortua eta «diskoaren ideiarik oraindik» planteatu gabea [2-3](#)

URTEARI ADIO KORRIKA ESATEKO ZAZPI PROPOSAMEN

Alegia, Asteasu, Berastegi, Ibarra, Lizartza, Tolosa eta Villabona-Zizurkilek prest dituzte euren lasterketak [7](#)



Alegian, esaterako, haur eta helduek, korrika egiteko aukera izango dute. N.R.A.

TOLOSAKO UDALEKO WEBGUNEAK ATAL BERRIA, GARDENTASUNA

Informazioa herritarrei bideratzeko gune berria izango du udal atariak [6](#)

JUAN MARI MUJIKA AMEZKETARRA ASTELEHENEAN ASKE GERATU ZEN

Valdemoroko kartzela atarian zain izan zituen senideak astelehen iluntzean Juan Mari Mujika amezketarrak, libre geratzeko unean [3](#)



MERK&TO
RONDILLA, 10 - TOLOSA

Arraindegia
943
506
361

Okindegia
943
506
362

Fruitadegia
943
506
363


Harategia
943
506
364



Txerri
SAIHESKIA 3,96€/Kg



Txekor
TXULETA 10,96€/Kg



Zahar
ENTREKOTA 12,96€/Kg



TXANGURRU 4,50€
bete izoztua bakoitza



TXIPIROI 8,95€/Kg
izoztua

Tomas Lizardi, Oihan Agirretxe, Nahikari Calleja eta Iñaki Lizaso • BiHozkadak

«Jendeak epai dezala zein estilotako musika jotzen dugun»

Sortu berri den talde baten esperientziari, bizipenei eta aurrera begirakoei buruz hitz egin du BiHozkada musika taldeak. Orain bost hilabete sortu zen, eta bere bidea egiten ari da, «pixkanaka» baina «gustura».

IOSU ITURRIOZ DORRONSORO

Egiten duten musika definitzeko eskatu ohi zaie musika taldeei; bereziki jaio berri diren horiei. BiHozkada entzuleek definitu dezaten nahiago dute, ordea, Iñaki Lizaso –billabonatarra, ahotsa eta gitarra–, Tomas Lizardi –alkizarra, gitarra–, Nahikari Callejak –anoetarra, baxua– eta Oihan Agirretxek –lasartearra, bateria–. «Ezustean» sortu zuten laukotea. Orain berau «sendotzen eta indartzen» ari dira.

BiHozkada. Nondik dator izena?

Iñaki Lizaso: Hasieran beste izen bat pentsatua genuen: HKB. Kasualitate hutsez, egun batean entsegu-ara gindoazela Tomasek auto bat aurreratu zuen eta haren matrikula HKB zela ohartu ginen. Taldearentzat izen interesgarria izan zitekeela iruditzen zitzaigun, euskaraz egini-ko hitz jokoagatik –Atsekabe–. Atsekabe eta Atzekabe izeneko bi talde jada existitzen dira, ordea. Hitz jokoaren hariarekin jarraituz, egungo izena bururatu zitzaigun; morbo-soa eta sentibera, aldi berean [barre algarak].

Orain gutxi sortu duzue taldea.

Noiz, zehazki?

Tomas Lizardi: Iñaki eta biok eman genuen lehen pausoa. Orain arte gitarra maisua izan naiz ni eta 2013an Iñakik gitarra jotzen hasi nahi zuela esan zidan. Klase ordu batzuk finkatu eta lanean hasi ginen. Akorde pare bat ikasi orduko, «hi grupoa in behar diu», esan zidan. Nire erantzuna: «Bai bai ingoiu –erdi txantxetan–, gitarra jotzen ikasi behar dek eta prozesu luzea dek». Hurrengo asterako berak sortutako



«Denetarik» jotzen duela aitortzen du BiHozkadak taldeak. I. ITURRIOZ

“ Niretzat lehen aldia zen oholtza gainera igotzen nintzena, gainerakoentzat ez; hala ere, denon aurpegietan urduritasuna bistakoa zen”

IÑAKI LIZASO • AHOTSA ETA GITARRA

kantu batekin etorri zen klasera. Egun hartan hasi zen guztia. Kantu bat nahikoa ez zenez, pixkanaka kantu gehiago konposatzeari ekin genion.

I.L.: Pasa den urteko irailean Tomasek Nahikariri –baxua– proposamena egin zion; aurrez beste musika talde batean elkarrekin arituak ziren; baita, bateria jotzaile batekin ere; baina, hainbat arrazoi tarteko, azkenean ezin izan zuen taldean jarraitu. Hortaz, lagun batekin harremanetan jarri eta Oihanekin –bateria– kontaktatu genuen. Urtebete

Iragarki laburrak

LAN ESKAINTZAK

Ile apaindegia: Tolosako ile apaindegia baterako ile apaintzaile euskalduna behar da. Interesa dutenek, oficialpeluqueriatolosa@gmail.com helbide elektronikora bidali dezatela emaila.

“ Jendeak gure musika gustuko duela entzuteak poz handia ematen digu, ‘feedback’ positiboek aurrera jarraitzeko indarra ematen baitigute”

OIHAN AGIRRETXE • BATERIA

inguru kantuak sortzen eta gure musika hobetzen igaro dugu. Pasa den ekainean eskaini genuen BiHozkada taldearen lehen kontzertua, Usurbilgo Bitegi aretoan.

Ia bost hilabete pasa dira ordutik. Zer moduzkoak izan dira hilabete horiek?

I.L.: Lehenengo kontzertuari ‘entsegu irekia’ deitu genion guk. Ez genuen gehiegi zabaldu nahi izan, gehienbat familiako kideak eta inguruko jendea inguratzea nahi bait genuen. Taldekide guztiak oso urdu-ri geunden. Niretzat lehen aldia zen

oholtza gainera igotzen nintzena, gainerakoentzat ez; hala ere, denon aurpegietan urduritasuna bistakoa zen. Azken finean, aretoa gertuko jendez betea zegoen, zutikako kontzertu informal bat beharrean, guztiak eserlekuetan eserita zeuden, entzuleek gure kantuekiko ezjakintasuna zuten, kritika positibo edo negatiboen jakin-minez ginen... Lehen kontzertuaren atzetik etorri ziren gainerakoak.

Euskal Herrian abeslari gutxi egongo dira aldi berean pilotari direnak, zu bezala, Iñaki.

I.L.: Pampi Laduche da aurrekaria, bai pilotan eta bai kantuan ibilitakoa. Lagun bizkaitar bat ere badut, Mikel Gonzalez, egungo Euskal Herriko trinketista punta-puntakoa eta garai batean Nabari musika taldean aritutakoa; azkenean taldea pilotagatik utzi behar izan zuen. Inoiz lesio-rik ez izan eta duela gutxi, behartza hautsi nuen. Beharbada abisu bat izan da. Nik taldekideei hainbatetan aipatu diet, proiektu honek au-



**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



Juan Mari Mujika amezketarra aske geratu da



rrera jarraitu eta bide onetik badoa, nik jada pilota partida asko jokatuak ditudala; taldeko «aitona» ere bainaiz, eta, auskalo...

Gutxienez hiru pilotarik bide berbera jarraitu duzue, hortaz. Zuk zeuk betidanik izan al duzu musikarekiko pasioa?

I.L.: Anaiak gitarra jotzen du. Berari esan izan ohi nion gitarra jotzen erakutsi behar zidala. Berak pilotarien atzapar lodi hauekin gitarra jotzea ezinezkoa zela esaten zidan. Egia esan, etxean hiruzpalau gitarra izan eta ez nuen inoiz bat bera ere ukitu. Abestu bai, anaiarekin abesten nuen baina ez gitarra jo. Arrazoi hau bitarteko eta haur-hezkuntzako irakaslea naizenez eta umeei *pintto-pintto* kantua kasetean jartzea baino nik neuk jotzeak xarma gehiago duenez, Tomasengana jo eta gitarra jotzen hasi nintzen.

Zergatik ez zaizue gustatzen zuen musika definitzea?

Oihan Agirretxe: Jendeak epai dezala zein estilotako musika jotzen dugun. Hala ere, denetik jotzen dugu: rocka, punk-rocka... Hasiera batean popa jotzen genuela onartzea kostatu egiten zitzaigun; nolabaiteko konplexua sentitzen genuen.

T.L.: Behin, lagun batek, Power Pop -Peiremans taldearen musika estiloa- estiloko musika jotzen genuela

“**Oso talde gaztea dela iruditzen zaigu. Sendotasun eta konfiantza bila goaz orain. Abestiak elaboratzen ere lana badugu. Diskoaren edo maketaren ideia oraindik ez ditugu planteatu ere egin»**

TOMAS LIZARDI • GITARRA

esan zigun, eta guk uste dugu arrazoia duela. Azken batean, musika estilo ezberdinak entzun ditugu taldekide guztiok eta aniztasun hori gure kantuetan antzeman egiten da.

Nahikari Calleja: Adibidez, Oihanek punkaren bertsioak soilik jotzen dituen talde batean ere jotzen du, Tomas berbera talde batean aritu izan da, Tomasek eta biok ere rocka, jazz eta bluesa konbinatzen genituen talde batean jotzen genuen... Hortaz, bakoitzak bere ekarpena egiten dio taldeari eta horretatik guztitik lortzen dugu gure emaitza.

Emaitza horretaz zer iritzi du jendeak?

O.A.: Orokorrean oso kritika onak jaso ditugu. Jendeak gure musika gustuko duela entzuteak poz handia ematen digu, *feedback* positiboek aurrera jarraitzeko indarra ematen baitigute. Ilusio handia eskaini diogu proiektu honi. Jendearen harrera onik gabe zaila da aurrera jarraitzea. Bestalde, entzun erraza den musika jotzen dugula uste dugu eta

horrek jendearen gustukoa izatea errazten du.

Orain arteko erronka bete duzue: jendearen erantzuna ona izatea. Aurrera begirako asmoak zein dira?

I.L.: Hilean behin kontzertu bat eskaintzeko aukera izatea da gure helburu nagusia. Azaroan ez dugu aukerarik izan baina datozen hilabeteetan izango ditugu, seguru. Hori espero dugu behintzat.

Kontzertuak hitzartzen hasiak gara jada eta itxura ona dute datozen hilabeteek.

Diskorik ateratzeko asmorik baduzue?

T.L.: Oso talde gaztea dela iruditzen zaigu. Sendotasun eta konfiantza bila goaz orain. Abestiak elaboratzen ere lana badugu.

Diskoaren edo maketaren ideia oraindik ez ditugu planteatu ere egin. Ez da ahaztu behar diskoa kaleratzeko baliabide ekonomikoak ere behar direla eta oraindik talde hasiberria gara. Iritsiko da garaia.

Astelehen iluntzean aterata zen Valdemoroko kartzelatik Juan Mari Mujika amezketarra

ERREDAKZIOA AMEZKETA

Pasa den abenduaren 9an izan zen eskualdeko lau herritarren aurkako epaiketa, tartean zen Juan Mari Mujika. Epaiketa horren emaitza gisa ulertu daiteke honako irteera.

Senideek albistea «pozik» jaso zuten astelehen goizean, eta jakin bezain laster Valdemoro espetxera bidan jarri ziren, bertan baitzen Mujika. Horrela, astelehen iluntzerako senideen artean zen. Espetxe atarian zain izan zituen Mujikak, arreba, emaztea eta koinatua.

2001ean Jose Maria Aznar Espainiako orduko gobernuburua hiltzen saiatzea leporatuta epaitu zuten Mujika, Luis Iruretagoiena *Suní*, Peio Olano eta Goio Jimenezekin batera. Fiskaltzak, denera, 285 urteko espetxe zigorra eskatu zuen. Laurek ukatu zuten atentatu saioan parte hartu izana, eta Iruretagoienak ez beste guztiek ukatu zuten ETako kide direla epaiketan.

Epaiketa amaituta, fiskalak berretsi egin zituen hasierako zigor eskaerak: 72 urteko zigorra Iruretagoienarentzat, eta 71 urteko zigorra gainerakoentzat. Hala ere, bertan izan ziren zenbait herritarrek Tolosaldeko Ataria-ri adierazi zioten fiskalak aitortu zuela ez zegoela auzipertatuen aurkako proba «zehatzik».

Topatu behar duzuna!

tz9
tolosaldeko
Zerbitzu gida

Eskualdeko zerbitzuak

www.ataria.info

Hilberriak eta urteurrenak

**atarian jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.info • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Tolosaldea

Ilusioaren kriseilua piztera doa

Olentzero eta Mari Domingi eskualdera gerturatzeko ari dira

MAIER UGARTEMENDIA

Gabonak ilusioa sortzen dute, batez ere etxeko txikienei kasuan. Olentzero eta Mari Domingi bihar iritsiko dira eskualdeko etxeetara, baina lehenago hainbat herri bisitatuko dituzte. Begi lili-ratuekin begiratuko diete, gazteenek.

Festa giroa nabaria da, eta giro horri lotuta egitarau zabalak prestatu dituzte hainbat herritan egun hauetarako. ATARIA-k abenduaren 28ra bitartekoak bildu ditu.



Ibarrako plazan puzgarriak izan ziren atzo haur eta gaztetxoentzat; Berastegin Olentzero eta Mari Domingiren bisita jaso zuten. M. UGARTEMENDIA

Egitarauak herriz herri

ABALTZISKETA

Bihar, abenduak 24

09:00. Eskolako ikasle, guraso eta irakasleak kantuan, baserriz baserri. Bazkaria Larrunarrin.

ADUNA

Bihar, abenduak 24

09:00. Basopeta guraso elkarteak antolatuta, kantuan aterako dira baserriz baserri. Eguerdian, Txulobi elkartearen hamaiketako egingo dute kantari atera direnak.

ALBIZTUR

Bihar, abenduak 24

19:00. Olentzeroren etorrera, Elanetik abiatuta plazaraino. Ondoren, Olentzero udaletxeko arkupetan.

ALEGIA

Gaur, abenduak 23

19:00. Gaztetxean hitzaldia Siriaren inguruan, Karlos Zurutuzarekin: *Zer gertatzen da Ekialde Hurbilean?*

19:45. Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzen kontzertua.

Bihar, abenduak 24

11:00. San Juan eskolako ikasleak abesten kaleetan zehar.

18:30. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. Txintxarri abesbatza kantari ibiliko da.

Abenduak 25, ostirala

11:15. Txintxarri abesbatza kantuan meza nagusian.

Abenduak 26, larunbata

16:00. Gaztetxean umeen eguna. Txokolate jatea eta jolasak.

19:00. Bulebarrean, Ametsen kri-

seiluak Gure Esku Dagoren ekimena.

Abenduak 27, igandea

17:00. Zinemak, *Polar express*.

Abenduak 28, astelehena

10:00-13:00. Haurrentzako ekin-tzak. 15:30. Gabonetako pilota to-paketak (saillapenak).

22:00. Gaztetxean Play Backa.

ALKIZA

Abenduak 28, astelehena

09:00 - 13:00. Malabareak. Hamaiketako eta ondoren psikomotrizitateak.

ALTZO

Bihar, abenduak 24

10:00. Ikasle, irakasle eta gurasoen gabon eskeko erronda etxetik.

AMASA-VILLABONA

Bihar, abenduak 24

17:45. Otsabin txistorra banatuko da.

18:00. Olentzero eta Mari Domingi-

ri ongi etorria egingo zaie. Ondoren, Errebote plazara jaitsiko dira musikari eta dantzarien laguntzaz.

19:00. Manifestazioa *Hator hator etxera!* Ielorean Irualetatik abiatuta.

AMEZKETA

Gaur, abenduak 23

10:00-13:00. Gabonetako apain-garriak, Gaztelekuan, 6-11 urte.

16:30-20:30. Gaztelekua apaindu.

Bihar, abenduak 24

09:30. Zumadi eskolako haurrak Ugartetik aterako dira gabon kantak abesteko.

13:00. Haurrentzako bazkaria Zazpitturri elkartearen ondoren saskiaren zozketa.

Abenduak 26, larunbata

10:00-13:00. *Atrapa la bandera* filma, kultur etxean, 3-11 urte.

15:00-20:00. Txuri-urdinera irteera, Alegiako tren geltokitik.

Abenduak 28, astelehena

10:00-13:00. Ipuin kontalaria, kultur etxean, 3-11 urte.

17:00-20:00. Txokolatea eta txurroak, Gaztelekuan.

ANOETA

Gaur, abenduak 23

19:00. Ipuin kontaketa euskaraz eta sahanieraz: *Zhertat eta lehoia*, liburutegian.

Bihar, abenduak 24

18:00. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, plazan. Ongi-etorrian Loatzo Musika Eskola eta Anoetako Anitz Dantza Taldea. Ondoren, Olentzerok eta Mari Domingik gozokiak banatuko dituzte.

Abenduak 25, ostirala

12:00. Anoetako Txistulari taldearen kalejira.

ASTEASU

Gaur, abenduak 23

17:00. *Olentzero eta Subilaren Lapurreta* filma.

Bihar, abenduak 24

12:00. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera frontoian.

Abenduak 26, larunbata

16:00. Aitzondo elkartearen, Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa.

Abenduak 27, igandea

Patinaia pista Villabonan

ORIA merkatarien

AMASA-VILLABONA Villabonako Udala

ERREBOTE PLAZA
Abenduaren 15etik urtarrilaren 10era
11:00-14:00 / 17:00-21:00

GABONETAKO ZOZKETA: URTARRILAK 12
1.175 €. 4 diru sortatan banatua (6 hilabeteko epea)
www.oriamerkatariak.com

RAFA GORROTXATEGIEN ARTISAU

turroi eta erroskoak

Rafa Gorrotxategi

DENDA HAUTAN BAKARRIK:
TOLOSA: Ogi Berri / San Frantzisko Pasealekua, 29
DONOSTIA: Lukas Benta Berri Julio Caro Baroja Plaza, 1

11:30. I.Kross Herrikoi Solidarioa eta hamaiketakoa eta Trikitijira.
Abenduak 28, astelehena
15:30. Nesken Pala Topaketa (alebin eta Infantilak).
17:00. Clown-tu Kontari emanaldia eta askaria.

BALIARRAIN

Bihar, abenduak 24
14:00. Plazan elkartuko dira herri-tarrak, haur, gazte eta helduak, etxez etxe abestera joateko.

BELAUNTZA

Gaur, abenduak 23
11.00. Entsegua kultur etxean, ludotekan, hurrengo egunean kantuan ateratzeko.
Bihar, abenduak 24
15:00. Herriko taberna inguruan biltzea kantuan ateratzeko.
18:00. Olentzeroren etorrera opariekin Herriko Taberna inguruan. Ondoren, askaria.

BERASTEGI

Bihar, abenduak 24
09:00. Plazatik aterako dira herriko haur, gazte eta helduak etxez etxe abestera.
14:00. Aparkaleku azpiko lokalean bazkalduko dute. Guraso elkarteak kafea eta pastak jarriko ditu, baina bazkaria norberak eraman behar du.

BERROBI

Gaur, abenduak 23
09:00-12:00. Esku-lanak, 3-7 urte bitartekoentzat eta akobrazia 8-16 urte bitartekoentzat, plazan.
Bihar, abenduak 24
10:30. Gabonetako kantu-jira.
12:30. Hamaiketakoa.

17:00. Urrutin ohiko bilketa egingo da.
18:00. Olentzeroren etorrera, eta hurrei oparien banaketa.
19:00. Gaztain jatea.
Abenduak 28, astelehena
09:00-12:00. Salto-jolasa, 3-7 urte bitartekoentzat eta patinajea 8-16 urte bitartekoentzat, plazan.

BIDANIA-GOIAITZ

Bihar, abenduak 24
09:00. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, Goiaitzik abiatuta. Egun guztian herriko haur eta gurasoak herrian zehar abesten ibiliko dira.
18:30. Goiaitzera Olentzero eta Mari Domingi iritsiko dira eta frontoian ongi etorria.

ELDUAIN

Bihar, abenduak 24
14:30. Etxez etxe kantari ibiliko dira, plazatik abiatuta.

GAZTELU

Bihar, abenduak 24
18:30. Olentzero Arrospetik jaisten da adarra joaz plazara. Herriarrek bertan harrera egiten diote eta eskolara joango dira. Bertan Olentzerok opariak banatzen ditu.

HERNIALDE

Bihar, abenduak 24
09:00. Bentatik hasita, baserriz baserri gabon kantak abestuko dituzte.
14:00. Elkartean bazkaria, gabon kantukoen artean.
18:45. Gabon kantuan bukatuta, Olentzeroren etorrera.

IBARRA

Gaur, abenduak 23
09:30-11:30. Psikomotrizitate jolasak, gaztelekuan 6-9 urte bitartekoentzat.
11:30-13:30. Psikomotrizitate jolasak, gaztelekuan 10-12 urte bitartekoentzat.
10:30-13:30. Puzgarriak plazan.
16:00-17:00. 3D Puzzleak, gaztelekuan, 12-14 urte bitartekoentzat.
Bihar, abenduak 24
18:30. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, hilerritik plazara. Loatzoko musikariek, Alurreko dantzariak eta herriko abesbatzak parte hartuko dute.



Abenduak 27, igandea
18:00. Bertso tailerra, gaztetxean.
Abenduak 28, astelehena
09:30-11:30. Joko kooperatiboak, gaztelekuan 6-9 urtekoentzat.
11:30-13:30. Joko kooperatiboak, gaztelekuan 10-12 urtekoentzat.
17:00. Gutxiago gehiago da ipuin kontaketa, kultur etxean.
19:00. Jauzia proiektuaren aurkezpena eta *Bisaia*k: *jauziaren aurpegiak* dokumentala.

IKAZTEGIETA

Bihar, abenduak 24
08:30. Herriko taldea, baserriz baserri eta herrian kantuan eta eskean.
18:00. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera plazan.

IRURA

Gaur, abenduak 23
17:00. Ipuin kontalaria, 3-5 urte.
18:15. Ipuin kontalaria, 6-9.
Bihar, abenduak 24
11:30. Haurrentzat hamaiketakoa plazan.
12:30. Mari Domingiren etorrera gutunak eta jostailu zaharrak jasotzeko, plazan.
18:00. Olentzero opariak banatzera jaitsiko da plazara, eta jaiotza bizidunari abestuko dio.
Abenduak 28, astelehena
15:00. Ficobako Eguberrietako haur parkera irteera.

LARRAUL

Abenduak 28, astelehena
09:00 - 13:00. Malabareak. Hamaiketakoa eta ondoren psikomotrizitatea.

LEABURU-TXARAMA

Gaur, abenduak 23
12:00. Udalak saski eder bat zozketatuko du herritarren artean. Plazan zenbakia hurrek aterako dute.
16:30. Txaramako elkartearen adi-nekoentzat urteko azken bingo saioa eta merienda.
Bihar, abenduak 24
Arratsaldean. Herriko haur eta gaztetxoak kantuan ibiliko dira.

LIZARTZA

Bihar, abenduak 24
18:00. Olentzeroren etorrera. Gaztaina erreak izango dira eta guztia Otsolar dantza taldeak lagunduta.

ORENDAIN

Bihar, abenduak 24
10:00. Plazan elkartuko dira herri-tarrak etxez etxe abesten joateko. Ondoren bazkaria egingo dute Eltxo elkartearen.

OREXA

Bihar, abenduak 24
Egun osoan zehar. Etxez etxe kantari ibiliko dira.

ZIZURKIL

Bihar, abenduak 24
Ikastetxeetako olentzero. San Millan Ikastetxeko umeek baserrietan abestuko dute eta Pedro Mari Otano eta Zubimusu ikastetxeetako umeek Elbarrena auzoa alaituko dute. Ondoren, Urkamendi Elkartean hamaiketakoa.
17:30. Urkamendi aldetik etorriko dira Olentzero eta Mari Domingi, Loatzoko Musika Eskolako musikariek lagunduta. Plazan Bukalai Dantza Taldekoek dantzatu eta Loatzoko Musika Eskolakoek musika joko dute eta herriko haur guztiek Olentzerori muxu emateko aukera izango dute.

TOLOSA

Gaur, abenduak 23
20:15. Santa Klara komentuan, Hodeiertz abesbatzak Gabonetako kontzertua eskainiko du.
Bihar, abenduak 24
17:30. Olentzero eta Mari Domingi, Plaza Zaharrean.
Abenduak 27, igandea
17:00. Olentzero eta Amilaren sekretua, Leidorren.
Topic zentroan eta Gazte Topagunean haur eta gazteei zuzendutako ekitaldi bereziak izango dituzte, urtarilaren 5a bitarte.

270.000 € + BEZ

231.390 € + BEZ

AZKEN ZATIA
PISUAREN PREZIOAN,
ETXEA

ALEGIA
BEISTIN



Tf: 943 690 297 - 607 445 484
www.aburuza.com - aburuza@aburuza.com

Tolosaldea

Gardentasuna atala: informazioa eskuragarri, modu zuzenean



Anjel Alonso teknikaria, Joseba Ormazabal zinegotzia, Olatz Peon alkatea eta Xabier Telleria teknikaria, aurkezpenean. I.G.L.

Informazioa emateko atal berria jarri du martxan udalak bere webgunean

IMANOL GARCIA LANDA TOLOSA

Tolosako Udaleko webgunean dagoen atal berri bat aurkeztu dute, Gardentasuna izenekoa. Olatz Peon alkateak azaldu duenez, «gure helburua da gardentasuna sustraitzea eta sustatzea». Peonek nabarmendu duenez, «webgunean udalak antolatzen dituen zerbitzu guztiak aditzaera ematen badira ere, udalaren jarduera eta antolaketaren berri ematea da atal honen xedea». Orain bi urte Gardentasun legea onartu zen, eta lege horrek betebeharrak batzuz markatzen ditu. «Gure ustetan, legeak esaten duenetik harago, kudeatzaileen kontrol zorrotzak gizarte osoak egin behar du, hori delako bide bakarra herritarren konfiantza lortzeko, eta baita ere herritarren informazioa dena berez, gureganatzeko», esan du alkateak.

Bide horretan, Peonek azaldu

duenez, «nahi baldin badugu lortu gizarte inplikatuago bat, gizarte arduratsuago bat, derrigorrezkoa da gizarte ere ondo informatua egotea. Askotan aipatu dugu gobernantza berri horren erredua, eta hori da gizartearen berez aldatzen doalako, eta gizarteak eskatzen dituelako kon-tuak argiago ematea». Gobernantza eredu hori hobekuntzan eta berrikuntzan oinarrituta dagoela adierazi du Peonek, eta «Tolosa, azken finean, bizitzeko leku atsegina, ireki eta parte hartzaileago bat izan dadin, eta pertsonak, tolosarrak, partaide izan daitezen askatasunean eta berdintasunean».

Xabier Telleria udal teknikariak azaldu ditu udalaren webgunean ireki den Gardentasuna atalaren xehetasunak. «2013/19 legeak markatzen zituen erakunde publikoek erakutsi beharreko informazioa», azaldu du Telleriak. «Aurtengo abenduaren 15ean betetzen zen epea gutxieneko batzuekin zerbait publikatzeko. Bitarte horretan Eudelek lan talde batzuk osatu zituen, udalei laguntzeko. Gero garapena izan zuen horrek, Diputazioa ere inplika-

tu zen bere garaian, eta udal batzuk hasi ginen lanean».

Bestalde, Telleriak gogora ekarri duenez, «Gardentasun Legeak esaten du guk publikatzen dugunaz aparte, herritarrak baduela eskubidea beste zerbait nahiko balu hori eskatzeko ere, eta herritarrei erantzun behar zaio informazio eskaera horren inguruan». Eskaera horri informazioa emanez erantzungo zaio datu estatistikoak direnean, esaterako.

Hainbat informazio dago gaur egun Gardentasuna atalean. Alorretako bat, udal langileria eta antolabidea da. Besteak, informazio ekonomiko-finantzarioaren ingurukoa, eta hor bi gai daude: emandako laguntzak eta diru-laguntzak, eta izenpetutako hitzarmen eta kudeaketamandatuak. Beste alor bat udal kontratazioari buruzkoa da. Hiri antolamendua eta herri lanak da beste alorretako bat. Datu irekien katalogoa ere aurkitu daiteke bertan, eta baita udal araudi eta hitzarmenak. Azkenik, iradokizunak egiteko aukera dago, eta horrek Parte Hartzen atalera bideratzen du.

Irudia



Urrezko Bikain ziurtagiria 'Ataria'-ri

TOLOSALDEKO ATARIA-k Urrezko Bikain ziurtagiria jaso du, egunero lanean euskararekin duen konpromisoarengatik. Gasteizko Europa Bil-tzar Jauregian egin da agiri banaketa, eta Jexux Murua TOLOSALDEKO ATARIA-ren kudeatzaileak jaso zuen ziurtagiria Iñigo Urkullu lehendakaria, Kristina Uriarte Hizkuntza Politikako kontseilaria eta Patxi Baztarrika Euskara zuzendariaren eskutik. **IBAN ARANTZABAL**

Erakusketa egun gehiagotan ikusgai

ALTZO. XIX. Olientzerotan Jakinminez dela-eta Altzon jarri den neurri eta lanabes zaharren erakusketa luzatu egingo da. Hala, abenduaren 26an, larunbata, 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik; abenduaren 27an, igandea, 10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; urtarrilaren 2an, larunbata, 16:00etatik 20:00etara; eta urtarrilaren 3an, igandea, 10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Gure Esku Dagoren ekimena, gaur

OREXA. Kriseiluen ekimenaren barruan, Gure Esku Dagok Orexan gaur egingo du ekitaldia. Herriko plazan elkartuko dira, 19:00etan, kriseiluak airetatzeko.

Liburu aurkezpena eta errezitaldia

TOLOSA. Liburu aurkezpena eta errezitaldia egingo dute, gaur, 19:30ean, Tolosako Bidaierien Txokoan. *Txoriak Ezkututzen Zuen*a da liburuaren izena. Egileak Ainara Saez Baztan eta *Mattin* ilustratzailea dira. Emanaldian, hitzak zuzeneko musikaz eta marrazkiz lagunduak izango dira.

Haur parkea gaur inauguratuko dute

ELDUAIN. Gaur arratsaldean inauguratuko dute Elduiango haur parke berria, herriko plazan. 16:30ean izango da ekitaldia. Bestalde, abenduaren 30erako auzolanerako deialdia egin dute, hain justu, parkearen hesiak margotzeko. 11:00etan elkartuko dira bertan auzolaneari ariko direnak.

Gutunak

TOLOSALDEA, EUSKARAREN ARNASGUNEA, INDARTU DEZAGUN

Uemako kide garen Tolosaldeko 13 udal ordezkariak Tolosako Udalak Ueman jarraitzeko hartu duen erabakiarekin pozik gaudela adierazi nahi dugu.

1991. urtean Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea (Uema) sortu zenetik helburua argia izan da, guztiona den euskara sustatzeko, indartzeko eta garatzeko udalen elkarlana eta konpromisoan bat egin-

da hizkuntza normalizazioaren bidean pausoak ematea. Euskara bizi dadin eta herritarrak euskaraz bizi daitezen bitartekoak jartzea hain zuzen.

Tolosaldean, eskualde osoa euskalduna denez, hizkuntza normalizazioaren berebiziko erantzukizuna dugu, hemen, dituelako euskarak, indartu, garatu eta esparru guztietara iristeko aukera sendoak. Tolosaldean lortzen ez badugu, ez pentsa, Barakaldon, Tafallan edota Baionan erdietsiko dutenik.

Hizkuntza baten garapenean guztiok egin behar dugu aurrera, guztio-

na da hizkuntza normalizazioaren aldeko pausoak emateko erantzukizuna, baina egun esparru euskaldunenak hizkuntzaren osasuna garatzeko erantzukizun handiagoa dugu, aitzindariak garelako. Horregatik da garrantzitsua Tolosaldea euskararen arnasa-gune izateko oinarriak, bitartekoak eta adostasunak izatea; honez gain, helburu hori betetzeko denen arteko elkarlana garatzea, eta horretan Uemak berebiziko garrantzia du. Gurea, 50.000 biztanlez osaturiko eskualdea da eta euskarak garapen integrala izateko esparru geografiko handiena

izango litzateke, ekin dezagun bada lan horretan, izan gaitzen Euskal Herriko erreferente eta ipar.

28 udalerriz osaturiko eskualdea da gurea, Tolosa buru duena. Herri txiki askoren euskara zerbitzu eta plangintzak Uematik bideratzen dira. Tolosak euskara zerbitzua propioa du eta bere ildo propioak garatzeko gaitasuna du baina aldi berean eskualdeko besteez elkar ekin-tza sustatzeko Uema ezinbesteko tresna da. Uemak izan behar du Tolosaldea Euskararen Arnasa-gune proiektuaren koordinatzailea eta horretarako guztiok bertako kide

izatea ezinbestekoa da. Tolosaldean bizi garen herritarroiek euskaraz bizitzeko eskubidea ahalbidetzeko eta bermatzeko ezinbesteko tresna da.

Amaitzeko, Ueman ez dauden eskualdeko herriei gonbita egiten diegu Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak dituen baliabide eta zerbitzuak ezagutu ditzatela eta bertako kide izatea aztertu dezatela tokian tokiko udalbatzatan.

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Berastegi, Gaztelu, Ikaztegieta, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain eta Oresako udal ordezkariak

Aulkitik...



Loquilloren Tupea

Pasa den larunbatean probintziako kapitalera bidaiatu genuen, Easo talde ahalguztidunaren aurka partidua jokatzeko asmoz.

«Easo Loquillo» izena du talde Donostiarrak, Rock talde famatu eta bere abeslari eleganteak ematen duen babes ekonomikoari omenaldi eginaz. Partidua has-teko 30 minutu falta zirenerako hantxe zegoen Loquillo bera, bere Tupea txukun txukun orraz-tuta, bere taldeak beste garaipen bat pilatuko zain.



BEÑAT AZALDEGI
TAKE
SASKIBALOI

Gure helburua berriz garbia zen, Trogloditak bezala jolastea, talde konpaktu eta indartsu bat osatuta. Partidua lokatzetara eramanez nahi genuen, joko metodo hori gu baino kalitate gehiago duten taldeen aurka konpetitzeko bide eraginkorrena dela badakigulako.

Baina kaka zaharra, lokatzetara joate bide horretan, faltak, erabaki txarrak, eta Troglodita basatienek ere botako ez zituzten harrikadak bota genituen. Partidu oso txarra burutu genuen, aitzakiarik gabe.

Azken emaitza 72,49koa izan zen, eta eskerrak. Eta horrela, kristoren zaplaztekoa jasota, kapitalek herrira itzuli ginen, herri-tarrak herri-tar, eta hiritarrak tupea tente utzita. Eskerrak Alainen tortillek eta partidu osoan animatu gintuzten zaleek gaua pixka bat alaitu ziguten.

2015 urtea 4 garaipen eta 5 porroten balantzearekin amaitu du. Ez da pilatu zitekeen balantzerik onena, baina ezta okerrenera ere! Urte berriak ekarriko digu gure kirolaz gozatzeko eta garaipenak eskuratzeko aukera ugari.

Eskerrik asko urte guztian zehar partiduetara bertaratutako zaleen zaleetuei eta oro har, TAKE familia osatzen duzuen guztiei. Ondo pasa Gabonak, txintxo portatu eta eman egurra turroiari!
1,2,3 TAKE!

Urtea korrika ez amaitzeko zazpi aldiz pentsatu beharko da

Asteasun hilaren 27an egingo dute krosa, Segundo Montes Komunitatearen alde

ASIER IMAZ

Urtea geldirik amaitzea ez da erraza izango. Tolosaldean zazpi lasterketa egongo dira ondorengo egunetan. Lehena, Asteasun, hilaren 27an. Ondoren, beste seirak, urteko azken egunean.

Asteasun, igandean, El Salvadorreko Segundo Montes Komunitatearen alde ariko dira korrika, udalak bultzatuta. Lasterketa amaieran hamaketakoa eta zozketak egingo dituzte.

Lasterketa beterranoena Zumbeltz eta Urkamendik elkarlanean antolatzen dutena da, Zizurkil eta Villabona uztartuz. 32. edizioa aurrekoak bezain arrakastatsua izatea espero dute. Lasterketa bakoitzeko azkarrenak saritzeaz gain, parte hartzaile guztien artean 10 afari zozketatuko dituzte.

Alegian San Silvestre Krosaren seigarren edizioa egingo dute aurreten. Berezitasuna saritzen dute alegiarrek, eta aurreten ere mozorro onenarekin ateratzen den korrikalariak sari berezia izango du. Horrez gain, partaide guztien artean opariak zozketatuko dituzte. Hori nahikoa ez bada, guztientzat merienda jarriko



Tolosan eta Alegian mozorro onenaren saria egingo da urteko azken eguneko krosean. IMANOL GARCIA LANDA

dute. Lasterketa Alegiako Udaren laguntzarekin ateratzen dute aurre-tara.

Lizartzan arratsaldean izango da krosa, eta Otsabi Kirol Elkartek antolatuko du. Berastegin, aldiz, Urepele Elkartea aritu da laneketa horretan. Hamabigarren edizioa atondu dute aurtengorako, eta ohiko sariarekin batera, opari berezi bat

izango du helduen lasterketan lehen itzulia azkarren egiten duen korrikalariak: urdaiazpiko bat. Hori bai, krosa bukatu beharko du horretarako.

Ziurrenik jende gehien elkartzeko den krosa Tolosakoa izango da. Samaniego-Orixe KE-k antolatuta, aurreten 18. edizioa ospatuko dute. Alegian bezala, mozorro hoberena da-

raman lasterkariak opari berezia izango du Tolosan.

Horrez gain, elkartasun krosa izango da hurrengo ostegunean Zerkasian abiatuko dena. Izan ere, bertan biltzen duten diru guztia, Kolonbiako Guabas ibaiaren inguruan bizi den komunitateko Bibliomula proiektuaren jarraipena egiteko erabiliko da.

LASTERKETAK

ALEGIA

VI. San Silvestre Krosa.

- Abenduak 31, osteguna.
- 16:00etan.
- Kategoriak: Aurre benjaminak; benjaminak; alebinak; infantilak; kadeteak eta 16 urtetik gorakoak.
- Izen ematea, kultur etxean gaur 3 euroren truke. Egunean bertan, 14:30etik 15:30era, 5 eurotan. 16 urtetik gorakoak bakarrik ordaindu behar dute.

ASTEASU

I. Kros Herriko Solidarioa.

- Abenduak 27, igandea.
- 11:30ean, 2006 eta ondorengo urteetan jaiotakoak (500 m).
- 11:40ean, 2002tik 2005era jaiotakoak, biak barne, (2 km).
- 12:00etan, kadete, jubenil eta seniorrak (6 km).
- Izen ematea, egunean bertan, 11:30ak arte. Haurrek euro bat or-

daindu beharko dute, eta helduek 5 euro.

BERASTEGI

XII. Urte Zahar Krosa

- Abenduak 31, osteguna.
- 18:00etan.
- 2003tik aurrera jaiotakoak ibilbideari itzuli bat, hau da, 1,25 km. 2002tik behera jaiotakoak lau itzuli: 5 km.
- Izen ematea, abenduaren 30era bitarte, edo egunean bertan. Gazteenek aurretik 4 euro, egunean 6 euro. Helduenek aurretik 5 euro, egunean 7 euro.

IBARRA

I. Kros Herriko Solidarioa.

- Abenduak 31, osteguna.
- Haurren lasterketa 16:00etan hasiko da, eta helduena 16:30ean.
- Helduek 5.400 metro egin be-

harko dituzte. LH 1-2koek, 280 metro. LH 3-4koek, 600 metro. LH 5-6koek, 1.240 metro, eta DBH 1-2koek, 1.820 metro.

- Abenduaren 30ean, 18:00etatik 20:00etara plazan, Sendi Ekintza-ren lokalean, eta egunean bertan, 11:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 16:00etara.

LIZARTZA

San Silvestre Krosa.

- Abenduak 31, osteguna.
- 17:00etan.

TOLOSA

XVIII. San Silvestre Elkartasun Krosa.

- Abenduak 31, osteguna.
- Irteera puntua: Zerkasua.
- 15:30ean, benjaminak (700 m); alebinak (1.400 m) eta infantilak (1.400 m).
- 16:45ean, helduak (5.050 m).

- Izen ematea, abenduaren 30era bitarte Shanti Kirolak eta Usabal kiroldegian. Egunean bertan Zerkasian. Helduek aurretik 8 euro, egunean 12. Haurrak dohainik.

VILLABONA-ZIZURKIL

XXXII. Urte Zaharreko

Lasterketa.

- Abenduak 31, osteguna.
- 16:00etan, 9 urte bitartekoak lasterketa. Ibilbide txikiari bi itzuli.
- 16:10ean, alebinak. Lau itzuli ibilbide txikiari.
- 16:28an, infantilak eta kadeteak. Ibilbide nagusiari itzuli bakarra lehenek, eta bi bigarrenak.
- 16:30ean, jubenilak, helduak eta beterranoak. 2,15 km-ko ibilbide nagusiari hiru itzuli.
- Izen ematea, dohainik; Urkamendi Elkartean eta www.herri-krossa.com webgunean. Egunean bertan 11:00etatik aurrera.

Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SL
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Eneritz Maiz
Kudeatzailea: Jexux Murua
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
ataria@ataria.info • www.ataria.info
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.info

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.info
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.info
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@ataria.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.info
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.info
Bezero arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko...):
902 82 02 01

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

• Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L.-ko kideak:



Tolosaldeko
gizarte
eragileak

Ataria-k
Bai
Euskarari



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gaztelekua, zabalik

Ibarrako haur eta nerabeen parte hartzea sustatzeko

MIKEL IRAOLA IBARRA

Ibarrako haur eta nerabeen parte hartzea sustatzeko asmoz, Gaztelekua inauguratu dute; Azkue auzoan dago kokatuta.

Pasa den urtean Ibarrako gazteen parte hartzearen inguruko diagnosi bat abiatu zuten udalak eta Gaztematika, Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemak.

Azterketa hori hiru zatitan banatu zuten. Lehen fasean haurrekin kontaktu zuzena duten herriko eragile eta taldeak elkarriketatu zituzten, eztabaida taldeak sortuz. Gero, ohi-tura eta mugimenduen arabera herria zonifikatu zuten, jokabideak behatzeko. Eta amaitzeko, inguruko garapen agentzien txostenak kontrastatu zituzten.

Diagnosi horren ondorioetako bat izan zen PSZ, Parte-hartzea Sustatzeko Zerbitzua sortzearena. Beste modu batera esanda, Gazteleku bat sortzearena. «Izen bat asmatu behar-ko dugu orain», zioen hezitzaileetako batek.

Azkue auzoan dago kokaturik lokal berria, hots, lehen ludoteka zegoen leku berean. Hilabeteak eman dituzte egokitzapen lanak aurrera eramaten. Gazteekin batera egin dute lan hori. Hau da, txukuntze eta pintaketa lanak. Eta, horren guztiaren emaitza ostiralean ikusi ahal izan zuten bai herritarrek eta baita nerabe eta gazteek ere, orduan inauguratu baitzuten.



Parte hartzeko deia

Gaztelekua kudeatzeaz arduratuko diren hezitzaileek dei egin zieten haurrei bertan parte hartzeko: «Zuek izango zarete protagonistak. Herrian eragile ugari daude, eta gauza ugari antolatzen dituzte. Orain zuek beste bat gehiago izango zarete».

Mikel Agirrezabala alkateak, berriaz, gazteekin lana egin behar dela

azpimarratu zuen: «Askotan diogu nerabeak etorkizuna direla, baina oraina ere badira. Ideia ugari dituzte eta orain baliabideak emango zaizkie, ideia horiek garatzeko».

Bi gaztetxok ere hartu zuten hitza: «Gaztelekua ondo pasatzeko leku bat da, lagunak egiteko. Gauzak antolatzeko aukera dago, zuek proposatzen dituzuenak». Atea, zabalik da.



09:00-11:00: Pasahitza
albisteak, ekokultura, Tolosaldea Garatzen, Joxemi Saizar
Kale kantoitik, errezeta eta Antontelleriaren eguneko abestia.
11:00-12:00: Eutsi goiari!
kirol albisteak.
12:00-13:00: Entzuteko jaioak
musika saioa.
16:00-18:00: Zebrabidea.
18:00-20:00. Goizeko saioak
utzitako onena.
20:00. GBT bertso saioa.

Aiztondorako frekuentzia berria:
105.0 fm



12:30. On ein!
13:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
22:00. Arteka.
23:00. Hurbilean Fermin Muguruza.
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.



GAUR
16° 08°

BIHAR
16° 07°

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



GAUR
Tolosa
Egunekoa:
Olarreaga Aranburu, I.
Korreo, 2. Tel.: 943 670128.
Gauekoa:
Etxebeste Elozegi, JM..
Gernikako arbola lorategiak, 3.
Telefonoa: 943 651040.

XVIII. SAMANIEGO-ORRIE K.E. elkartasun krosa
abenduak 31 arratsaldeko 15:30ean ZERKAUSIAN

distantziak
15:30 benjaminiak 100 m
16:00 elebikiak 100 m
16:45 infantiak 100 m
16:45 helduak 150 m

sariak
Kalegoria bakoitzaren emaitzen sari banaketa: 1. inguru da kanpistak (gaurkoan arte) eta gaurkorrak.

17:45 helduak eta txikiak: Kanpistak, opor-ia eta gaurkorrak. Horaz gain parte hartzaile guztien artean hasi-ri opari zuzentzat 100.000, 100.000 eta 100.000, 100.000 eta 100.000.

izen-ematea
Hekuntz abenduak 17:00-18:00. SHANTI KIROLAK denda eta USABAL KINOLDEAN (abenduak 21:00-24:00 eta 24:00-26:00) edota egun berean ZERKAUSIAN. Beste kategoriek aldez aurretik ikastetxeetan edota egunetan bertan ZERKAUSIAN.

Helduak saria 8 euro, eguneko 12 euro. Haurrak DOHAINIK.

Oharra: antolatzailek gerta daitezkeen lesioen ardura ez du bere gain hartuko.

(Elkartasun krosa frontetik jarraitzen den elkar-
gaitasunaren inguruan (Zerkausi) bizi den
komunitateko (Zerkausi) proiektuaren
jarraitzaile egiteko erabakia da.)

muebles IBARRA altzariak

Essenzia Dormir

Euskal Herria kalea 37 behe • IBARRA
mueblesibarra.decoracion@facebook.com

Zorionak eta Urte Berri on!

Zure Eguberrietako erosketek saria dute IBARRAN

Erosketa txetxe
4X100€

Zozketa urtarrilak 11, 13:30etan.
Aparkatzeko ordu beteko OTA kartelak doan lortzeko aukera dendetan.

EKINTZAK
Abenduak 20:
Nerabeentzat sukaldaritza tailerra, 16:30 - 19:30, udalbatetik abiatuta. Izen-ematea: Kiribil Itzapaidegian

Abenduak 30:
Saskibol tailerra, 10:30 - 13:30, Gazteleku (Azkue, 9)

Abenduak 22 eta 23: 10:30 - 13:30
Puzgarriak udalbatetik puzan

ibarra merkatari elkarte